



ELKARBIZITZA PLANA

2010/11 kurtsuan hasiera eman genion hobekuntza plan berri bati, **ELKARBIZITZA PLANA**. Talde honen helburu nagusia Askartzan osatzen dugun talde guztion (guraso, irakasle, irakasle, PASEko langileak...) arteko elkarbizitza positiboa lortzea da. Horretarako, talde guztiokin hasi ginen lan egiten.

Sensibilizazio fasean lortu genuen ELKARBIZITZAren definizio bat adostea irakasleen eta ikasleen artean; diagnosiaren barruan zerrendatu genituen zeintzuk diren elkarbizitza positiboa lortzeko dauden oztoporik nagusienak; eta amaitzeko, hobekuntza plan bat adostu genuen 2011/12 ikasturtean aurreara eramateko. (Besteak beste, "aho-belarri" programa martxan jartzea LHko ikasleen artean. Tartekariak formatzen jarraitzea DBHn...)

Gurasoen artean boluntarioak eskatu genituen lan egiteko eta inkesta bat pasatu genien. Orain, inkesta horren emaitza publikoki zabaldu nahi ditugu. Galdesortan **OINARRIZKOTZAT** jotzen zituzten hiru gai aukeratzeko eskatzen zen, eta honakoak dira gehien errepikatu zirenak:

- 1.- **Elkarbizitzak guztiok inplikatzeko gaitu**: familiak, irakasleak, ikasleak, administrazio eta zerbitzuen pertsonala. Partaidetza-bideak sortu behar dira nola funtzionatu nahi dugun definitzeko eta elkarbizitza osasuntsurako.
- 2.- **Elkarbizitza arazoak normalak dira** eta naturala da familien, zentroen eta bestelako kolektiboen barruan gertatzea. Helburua hauex: hauek ohizko funtzionamendua oztopatu ez dezaten, landu eta bideratu ahal izatea, prozesuan pertsona guztiok ikasi ahal izan dezagun eta hazi ahal gaitzen.
- 3.- **Gurasook badugu zer egin zentroan elkarbizitzak ondo funtziona dezan**. Partaidetza da aspektu askotan funtzionamendua hobetzeko bide.

Aldi berean, Askartza dituen elkarbizitza positiboa izateko (ikasleen artean, irakasle eta ikasleen artean, guraso eta irakasleen artean...) hiru **OZTOPORIK NABARMENENAK** esteko ere eskatzen zen eta hau agertu zen:

- 1.- Hezkuntzari buruz kontzeptu desberdinak./Inplikazioa/konpromisua/gurasoen eta irakasleen arteko erantzunkizuna.
- 2.- Ikastetxearen ezaugarriak: zentroaren tamaina (antolaketa, ordutegia...); zentroaren kokapena.
- 3.- Irakaskuntza-ikaskuntza / dibertsitateari jaramona.
- 4.- Elkarbizitza-Disziplina
- 5.- Komunikazioa / ikastetxe-familia koordinazioa (komunikazioeza)
- 6.- Gurasoen parte hartzea
- 7.- Ideologia.

Aurten hau izango da gure abiapuntua eta boluntarioak eskatu ditugu oztopo hauetako bat (gehien agertu zena, komunikazioarena) konpontzeko bideak adosteko.

Mila esker zuen laguntzagatik.